



**2020 HAUTESKUNDEAK  
HAUTESKUNDE BATZORDEA  
1 ZKDUN AKTA**

**ETORRITAKOAK:**

D. Lorenzo González Sarmiento, Hauteskunde batzordeko presidente gisa.

D. Iñaki Irigoien Larrañaga, hauteskunde batzordeko idazkari gisa.

D. Kepa Sanz Vicente, hauteskunde batzordeko bokal gisa.

Gipuzkoako Futbol Federakuntzako egoitzan, 2020-ko Irailaren 21ean, arratsaldeko 6.30 –ak izanik, eta aurretiaz Federazioko presidentearen deialdia jaso ondoren, 2020ko Irailaren 17an GFFko Batzar Orokorrak izendatutako goian aipatutako pertsonak osatzen duten Hauteskunde Batzordea elkartu da hauteskunde batzordeko batzarra osatuz; horrela, Gipuzkoako Futbol Federakuntzako Batzar Orokorrerako, Presidente eta Direktibarako kideak aukeratzeko hauteskunde prozesuari hasera ematen zaio.

Horrela, eta, hauteskunde araudiak ematen dituen funtzioak beteaz, honako akordio hauek hartu dira aho batez:

- 1) Hauteskunde batzordeko kide gisa kargua onartu.
- 2) Akta honi itsatsia datorkion hauteskunde egutegia onartu.
- 3) GFF-FGG Osatzen duten estamentuen BEHIN BEHINEKO HAUTAGAIEN ERROLDA onartu.  
Hemen, Hauteskunde Arautegiak erabakitzen dituen 41, 42 eta 43 artikuluek esaten dutena, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko 2012ko Otsailaren 19ko AGINDUAK eta konkretuki, Zazpigarren Erabaki Gehigarrian erabakitzen duenaren arabera ulertuko dira, non, Euskadiko eta Lurralde ezberdinetako hauteskunde arautegiak eta hauteskunde ospakizunetarako aginduak azaltzen diren
- 4) Hauteskunde Araudiaren 22 artikulua dioenaren arabera, Behin Behineko Hautagaien Erroldari alegazioak egiteko gehinezko epea, Irailaren 28ko eguadiako 12etan geratzen da.
- 5) Hauteskunde arautegiko 21, 30, 31, 32 eta 33 artikuluek diotenaren arabera, beharrezko aipamenak eman Federakuntzako idazkaritzari, hauteskunde prozesuaren berri eman dezan.
- 6) Hauteskunde arautegiko 34. Artikuluak dioenaren arabera, beharrezko aipamenak eman Federakuntzako idazkaritzari, Administrazio adituari, errolda eta hauteskunde egutegiaren berri eman dezaion.

- 7) Bestalde, Hauteskunde Prozesu honi egin nahi diren Alegazio eta Errekurtsoaren aurkezpenari buruz, Hauteskunde Arautegiko 8 artikulueak diotenaren arabera, hauek, edozein era fisiko edo telematiko bidez egin ahal izango dira eta GFFko bidez, Hauteskunde Batzordeari zuzenduak izango dira. Hauei buruz, Hauteskunde Batzordea zorrotza izango da erabakitako epe eta orduei buruz, eta, horrela epez kanpo aurkeztutako idatziak ez dira kontutan hartuak izango.
- 8) Hauteskunde Batzordeak hartutako erabaki guztiak eta onartutako hauteskunde egutegiak COVID aren ondorioz beharrezkoak diren neurrien menpe daude, eta, ondorioz, Hauteskunde Batzordeak Administrazioak erabakitako neurri hauek bete daitezzen ardura izango du. Horrela, eta neurri hauek eta erabaki daitezkeen beste batzu betetzekotan, hauteskunde egutegia eta bertan erabakitzen diren ekintza eta egoitzak aldatuak izan daitezke.
- 9) Batzar Orokorrerako estamentuen hautagaiak aurkezteko horriak onartzen dira.

Donostian, 2020ko Irailaren 21a

### HAUTESKUNDE BATZORDEA

**Fdo: Iñaki Irigoien**



**Fdo: Lorenzo González**



**Fdo: Kepa Sanz**

